



1/2017 AKTA

2017ko urtarrilaren 26an, 9:00etan, Gasteizen bildu da **Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordearen osoko bilkura**, eta marjinan adierazitako kideak bertaratu dira. Aldez aurretiko bilera-deialdia egin zen, honako gai-zerrenda honekin:

1. Amaitzeke dauden erreklamazioen jarraipena

BATZORDEBURUA:

Javier Bikandi Irazabal jauna

KIDEAK:

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea

Ana Arkotxa Azkue andrea

IDAZKARIA:

Ana Arkotxa Azkue andrea

Jasotako erreklamazioak hobeto kudeatze aldera antolakuntzako zenbait kontu jorratu ostean (horien artean, batzordeko kideentzako karpeta komuna sortzea edo kexagileei identifikazioa eskatzea), batzordearen aurrean aurkeztu diren erreklamazioen izapidetze egoera birpasatu da.

Ondoren, batzordeburuak hitz egin du 2017/000012 erreklamazioa jorratzeko eta aurkeztu den ebazpen proposamena aztertzeko.

Hizlariak dio ebatzi behar dela ezin dela izapidetzeko onartu, izan ere, aldez aurretik ez da informazio publikoa eskuratzeko eskaerarik egin eta ez da horrelakorik ukatu. Beraz, ezin da erreklamaziotzat jo eta hori ebaztea ez da batzordearen eskumena. Modu berean, bere ustez, erreklamazio horren xedea ez da informazio publikoa eskuratzeko horretarako eskubidea gauzatu, helburua da batzordeak administrazio organo bati eska diezaion administrazio prozedura jakin batean berriazko ebazpena eman dezala (aurkeztutako gora jotzeko errekurtsioa ebaztea).

Uriarte andrea kidea ados dago ez onartzeko ebazpenarekin baina adierazi du, gaur egun, errekurtsioa ebazteko epea amaitu dela, beraz, jada ulertu daitekeela informazio publikoa eskuratzeko prozedura aplikatu dela. Hori dela eta, bere iritziz, idazkia igorri behar zaio gardentasunaren eta informazio publikoa eskuratzeko arloan EAEko administrazioko organo eskudunari, informazio publikoa eskuratzeko eskaera gisa izapidetzea egokia den ala ez azter dezala.



Hizlariak gaineratu du administrazio errekurtsu bat ebazteko atzerapenari buruzko azalpenak eskatzeko edo erantzuna exijitzeko eskubidea, administrazio prozesu guztietan, administrazioak berariazko ebazpena emateko eta jakinarazteko duen betebeharraren ondoriozkoa dela (39/2015 Legearen 21. art.). Hala, herritarrei dagokien arreta merezi duen informazio eskaera baten aurrean gaude. Dena den, ez dauka informazio publikoa eskuratzeko eskubideak dakarren babes berezia.

Hala ere, eta laguntzeko asmoz, eskaera hori Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzari jakinarazteko erabakia hartu da, hura baita eskuduna gardentasunaren arloan eta informazio publikoa eskuratzeko eskubideari lotuta izapidetu behar den erabaki dezake.

Jorrazteko gai gehiagorik ez dagoenez, batzordeburuak bilera amaitutzat eman du 10:30ean.

Idazkaria
Ana Arkotxa Azkue

Batzordeburua
Javier Bikandi Irazabal

Kidea
Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino